

# KANALAK

Enpresek komunikatzeko eta segmentu merkatuei beren balorezko proposamenak iristeko moduak dira kanalak. Gure proiektuaren kanala zuzena izango da.

Enpresak denda propioak izango dituzte, bertan bezeroak etorri eta eskaintza egin dezake. Langileek arretaz entzungo diete eta informazio gehiago emango diete bezeroei, horrez gain, eskaria egiten badute ordenagailuan atxikituta geratuko da. Bestalde, webgune bat izango du guren enpresak, bertan gure produktua aurkeztuko da eta bezeroak nahiko balu, telefonoz deituko (telefono zenbakia webgunean egongo da) lioke gure enpresari. Langileak telefonoz egindako eskaria atxikituko dute ordenagailuan.

Enpresak furgoneta propioak izango dituzte eta kanalerako erabiliko dira. Langileak eskaria egiten duten etxeraino joango dira furgoneta bidez, bertan bezeroak nahi duen lekuan eraikiko da gure dutxa. Ordainketa eskudiruz edo txartel bidez egin dezakete momentuan edo eskaria egiten dutenean.

Bezeroarekiko harreman guneak 5 fasez osatuta dago:

1. Pertzepzioa: Bezeroak gure proiektua webgunean edo propagandetan ikusi dezakete
2. Ebaluazioa: Bezeroak bere kabuz egingo du proiektuaren ebaluazioa. Honela, ingurumenari laguntzea pentsatzen badu gure dutxaren eskaria egingo du.
3. Erosketa: Eskaria telefonoz bidez (webgunean egongo da telefono zenbakia) edo dendara etorri egin daiteke. Langileek ordenagailuan apuntatuko dute eskaria.
4. Entrega: Langileek furgoneta bidez joango dira bezeroarengana. Horrez gain, dutxa eraikiko dute bezeroak nahi duen lekuan.
5. Salmenta ondoregoa: Bezeroak telefonoz edo dendara deitu beharko du gure aldetik bestelako ondasun edo zerbitzu gehigarri bat beharko balu. Horrela langileak berriz ere joango dira bezeroarengana.